

Erabiltzailearentzako Gida

Herritarren arloa

2019ko uztaila





Edukia

1	ZER DA HERRITARREN ARLOA?	4
2	BALDINTZA TEKNIKOAK	4
3	NOLA SARTU?	5
3.1	APLIKAZIORAKO SARBIDEA	5
3.2	HERRITARREN ARLOKO SARBIDEA	6
3.3	LAN-EREMUAK	8
4	ESKAINITAKO ZERBITZUEN DESKRIBAPENA	9
4.1	ZURE DOKUMENTUAK EKS BITARTEZ EGIAZTATU	9
4.2	ZURE IZAPIDEEN EGOERA KONTSULTATU	11
4.3	HERRITAREN ARLOTIK IRTEN	13
5	LAGUNTZA	144

Irudiak

Irudia 1: Aplikaziorako sarbidea	5
Irudia 2: Identifikazio elektronikoa	7
Irudia 3: Idazki Desktop-en pantaila	7
Irudia 4: Lan-eremuak	8
Irudia 5: Menua ireki/ixteko botoia.....	9
Irudia 6: EKSren bitartez dokumentuak egiaztatu	10
Irudia 7: Captcha eta EKS egiaztatu	10
Irudia 8: Zuzen egiaztatutako dokumentua	11
Irudia 9: Izapide bat kontsultatu.....	12
Irudia 10: Izapide motaren arabera kontsultatu	12
Irudia 11: Izapide guztien kontsulta	13
Irudia 12: Aplikazioa itxi.....	13

1 Zer da Herritarren arloa?

Euskadiko Justizia Administrazioarekin harremanak errazteko herritarrei zuzendutako eremua da. Oraingoz, ondorengo zerbitzuak erabili daitezke:

- Izapideen egoeraren kontsulta: jaiotza-, ezkontza- eta heriotza-ziurtagiri eskaerak, erreklamazioak eta iradokizunak, besteak beste.
- Dokumentu digitalen egiaztapena, Egiaztatzeko Kode Seguruaren bidez (EKS).

2 Baldintza teknikoak

Aplikazioa erabili ahal izateko, ziurtatze-erakunde ezberdinek igorritako ziurtagiri digitalen bat eduki behar duzu:

- NAN elektronikoa
- Izenperen Ziurtagiri elektronikoa
- FNMT ziurtagiri digitala / FNMT-ren Ziurtagiriaren softwarea (nabigatzailean instalatuta)

JustiziaEus-eko Herritarren arloan kontsultatu ditzakezu:


[Zein gutxieneko eskakizun bete behar ditut Herritarren arloan sartzeko](#)

[Nola prestatu behar dut nire ordenagailua Herritarren arloan sartzeko](#)

3 Nola sartu?

3.1 Aplikaziorako sarbidea

Aplikaziora sartzeko JustiziaEus-en sartu behar duzu; bertan, “Zerbitzuak eta izapideak” atalean bi aukera aurkituko dituzu: “Zerbitzuak eta Izapideak” atalaren goiko eskuineko aldean, goiburuaren azpian “Zure izapideen egoera ikusi” eta “Egiaztatu zure dokumentuak digitalki”.



Irudia 1: Aplikaziorako sarbidea

“Zure izapideen egoera kontsultatu” ataletik sartzen bazara, zerbitzu horren deskribapena eta sarbidea ikusiko dituzu.

“Egiaztatu zure dokumentuak digitalki” ataletik sartzen bazara, zerbitzu horren deskribapena eta sarbidea ikusiko dituzu.

Aukera bien barruan “Sartu zerbitzuan” sakatzerakoan elektronikoki identifikatzeko eremua agertuko zaizu; herritarren eremura sartu ahal izateko nahitaezkoa da identifikatzea.

Identifikatu ostean, aukeratu duzun atalaren funtzionaltasuna erakutsiko zaizu; ondoren, aplikazioaren edozein ataletik nabigatzeko aukera izango duzu.

3.2 Herritarren arloko Sarbidea

Identifikatzeko, NAN elektronikoa, Izenpe txartela edo FNMT ziurtagiri elektronikoa behar duzu. Edozein kasutan ere, erabiltzailearen ziurtagiri elektronikoa baliozkotzat jotzeko Idazki Desktop instalatuta eduki behar duzu.




[NAN elektronikoa](#) (3.0 NANak berarekin dakar ziurtagiri elektronikoa)



[Izenperen txartela](#) (elektronikoki sinatzeko ziurtagiriak igortzen dituen euskal enpresa)



[FNMT txartela](#) edo FNMTren ziurtagiri elektronikoaren softwarea (Fábrica Nacional de Moneda y Timbre, ziurtagiriak igortzen dituen erakundea)



Irudia 2: Identifikazio elektronikoa

Eskatutako datuak sartu ondoren, aplikazioak egiaztatu egin behar ditu. Horretarako, [Idazki Desktop](#) izeneko softwarea instalatuta eduki behar duzu.




Irudia 3: Idazki Desktop-en pantaila

3.3 Lan-eremuak

Aplikazioaren pantaila guztietan hiru lan-eremu ikusiko dituzu:

- *Goiko eremua*: sisteman identifikatuta dagoen erabiltzailearen datuak agertuko dira, hizkuntza aldatzeko aukera dago eta aplikaziotik irtetzeko aukera agertuko da.
- *Ezkerreko alboko eremua*: aplikazioaren menu nagusia da, eta identifikatuta dagoen erabiltzaileak nabigatzeko dituen aukerak agertuko dira.
- *Erdialdeko eremua edo lanerako eremua*: menu nagusian aukeratutako zerbitzua ikusiko duzu.



The screenshot shows the 'Justiziaeus' website interface. The top navigation bar includes 'Herritarren gunea' (Citizens' area) and language options. The sidebar on the left, titled 'Zerbitzuak' (Services), lists 'Egiazta zure dokumentuak EKSarekin' (Authenticate your documents with EKS) and 'Zure izapideen egoera ikusi' (View the status of your requests). The main content area, titled 'Egiazta zure dokumentuak EKSarekin', provides instructions on how to authenticate documents using the EKS (Electronic Signature) system. It includes a form with fields for 'EKS' and 'CAPTCHA', and a 'Egiazta' (Authenticate) button. The page also features a date '2019/7/31' and a user ID 'NAN 99999999R'.

Irudia 4: Lan-eremuak

Hasiera batetik nabigazio-menua zabalik agertuko da (lehenetsita) eta zabalik jarraituko du baldin eta erabiltzaileak tolesteko (ezkutatze) edo zabaltzeko (erakusteko) botoia sakatu arte.

Zerbitzuak

- ◆ Egiaztatu zure dokumentuak EKSarekin
- ◆ Zure izapideen egoera ikusi



Irudia 5: Menua ireki/ixteko botoia

4 Eskaintako zerbitzuen deskribapena

Jarraian, erabiltzaile bakoitzak bere profilaren arabera erabili ditzakeen funtzioak jasota daude:

- **Izapideen egoeraren kontsulta:** aukera honetan Justiziaeus bitartez aurkeztutako izapideen, iradokizunen edo erreklamazioen egoera kontsulta daiteke.
- **Zure dokumentuak EKS bitartez egiaztatu:** eremu honetan, Egiaztatze Kode Seguruaren bitartez (EKS), dokumentuak egiaztatze aukera dago. Zerbitzu honek, norbanakoak paperean duen dokumentua Euskadiko Justizia Administrazioak duenarekin bat datorrela egiaztatze balio du.

4.1 Zure dokumentuak EKS bitartez egiaztatu

Dokumentuaren Egiaztatze Kode Seguruarekin dokumentuak egiaztatu daitezke.

Kontsultarako beharrezkoak dira:

- Dokumentuaren Egiaztatze Kode Segurua (EKS)
- CAPTCHA

Eremu hauek betetzea nahitaezkoa da; ondoren, “*Egiaztatu*” botoia sakatu.

Herritarren gunea hasiera | harremanetan jarri | español

Justiziaeus NAN 99999999R EIDAS CERTIFICADO, PRUEBAS Deskonectatu

Zerbitzuak

- Egiatzatu zure dokumentuak EKSarekin
- Zure izapideen egoera ikusi

Egiatzatu zure dokumentuak EKSarekin

Euskadiko Justizia Administrazioak sortutako dokumentuetako orriek Egiatzatze Kode Segurua dute (EKS). Kodeak, paperean inprimatutako dokumentua egiatzatzeko balio du.

Dokumentuak egiatzatzeko zerbitzuaren bitartez dokumentu elektronikoa –jatorrizko sinadurekin- berreskuratu dezakezu, inprimatutako dokumentuan datorren Egiatzatzeko Kode Segurua (EKS) erabilita.

*-rekin adierazitako eremuak nahitaezkoak dira.

 * EKS

 Sakatu **hemen** irudia ikusten ez baduzu

* CAPTCHA

Justizia Administrazioa Euskadin [Lege informazioa](#) [Pribatasuna](#) [Atzizgarritasuna](#)

Irudia 6: EKSren bitartez dokumentuak egiatzatu

“Egiatzatu” botoia sakatzerakoan, sistemak eremuak egiatzatuko ditu; nahitaezkoak diren eremuak beteta daudela eta sartutako CAPTCHA zuzena dela egiatzatuko du. Akatsen bat badago, hurrengo mezua ikusiko da:

Herritarren gunea hasiera | harremanetan jarri | español

Justiziaeus NAN 99999999R EIDAS CERTIFICADO, PRUEBAS Deskonectatu

Zerbitzuak

- Egiatzatu zure dokumentuak EKSarekin
- Zure izapideen egoera ikusi

Egiatzatu zure dokumentuak EKSarekin

EKS nahitaezkoa da
Captcha nahitaezkoa da

Euskadiko Justizia Administrazioak sortutako dokumentuetako orriek Egiatzatze Kode Segurua dute (EKS). Kodeak, paperean inprimatutako dokumentua egiatzatzeko balio du.

Dokumentuak egiatzatzeko zerbitzuaren bitartez dokumentu elektronikoa –jatorrizko sinadurekin- berreskuratu dezakezu, inprimatutako dokumentuan datorren Egiatzatzeko Kode Segurua (EKS) erabilita.

*-rekin adierazitako eremuak nahitaezkoak dira.

 * EKS

 Sakatu **hemen** irudia ikusten ez baduzu

* CAPTCHA

Justizia Administrazioa Euskadin [Lege informazioa](#) [Pribatasuna](#) [Atzizgarritasuna](#)

Irudia 7: Captcha eta EKS egiatzatu

Adierazitako CAPTCHA zuzena bada eta EKSa Justiziako datu basean dagoen dokumentuarekin bat badator, aplikazioak dokumentua zuzen egiatzatu dela adieraziko du eta “dokumentua jaitsi” aukera erakutsiko du.

Herritarren gunea hasiera | harremanetan jarri | español

Justiziaeus NAN 45663729N NAVAS CARRASCAL, EDURNE [Deskonektatu](#)

Zerbitzuak

- Egiatzatu zure dokumentuak EKSarekin
- Zure izapideen egoera ikusi

Egiatzatu zure dokumentuak EKSarekin

Dokumentua zuzen egiaztatu da [Deskargatu dokumentua](#)

Euskadiko Justizia Administrazioak sortutako dokumentuetako orriek Egiatzatze Kode Segurua dute (EKS). Kodeak, paperean inprimatutako dokumentua egiaztatzeko balio du.

Dokumentuak egiaztatzeko zerbitzuaren bitartez dokumentu elektronikoa –jatorrizko sinadurekin- berreskuratu dezakezu, inprimatutako dokumentuan datorren Egiatzatze Kode Segurua (EKS) erabilita.

*-rekin adierazitako eremuak nahitaezkoak dira.

 * EKS

 Sakatu esteka honetan [audioa](#) entzuteko

* CAPTCHA

[Egiatzatu](#)

Justizia Administrazioa Euskadin [Lege informazioa](#) [Pribatasuna](#) [Erabilerraztasuna](#)

Irudia 8: Zuzen egiaztatutako dokumentua

4.2 Zure izapideen egoera kontsultatu

Aukera honen bitartez Euskadiko Justizia Administrazioan egindako izapideen, iradokizunen eta erreklamazioen zein eskatutako ziurtagirien egoera kontsultatu daiteke (jaiotza-, heriotza- eta ezkontza- ziurtagiriak, e.a.).

Izapide baten kontsulta

Aplikazioak izapide bakar baten egoera kontsultatzeko aukera eskaintzen du. Horretarako, aplikazioaren baitan, kontsultarako eremuaren barruan *“Izapide bat”* aukeratu behar duzu, eta ondoren izapidearen erreferentzia sartu beharko duzu. Erreferentzia hori, aplikazioan izena ematerakoan adierazitako posta elektronikoko helbidean jasoko duzu. Ondoren, *“Bilatu”* botoia sakatu behar duzu.

Irudia 9: Izapide bat kontsultatu

Adierazitako erreferentzia-zenbakia izapidearekin bat badator, aplikazioak eskatutako izapidearen egoera erakutsiko dizu .

Izapideen kontsulta, izapide motaren arabera

Eskatutako mota zehatz bateko izapideen egoera kontsultatzeko “*Izapide motak*” aukeratu behar duzu; ondoren agertuko den zerrendan izapide mota adierazi eta “*bilatu*” botoia sakatu behar duzu.

Irudia 10: Izapide motaren arabera kontsultatu

Aukeratutako izapide-motari dagokion zerrenda agertuko da, ilaretan.

Izapide guztiak kontsultatu

Izapide guztien egoera ikusteko, “*Izapide guztiak*” aukeratu eta ondoren, “*Bilatu*” botoia sakatu behar duzu.



Irudia 11: Izapide guztien kontsulta

Bilaketa egin ondoren, egin dituzun izapide guztiak agertuko dira pantailan, ilaretan.

4.3 Herritaren arlotik irten

Herritaren arlotik ateratzeko eta saioa amaitzeko, pantailaren goiko aldean eskuinean dagoen “*Deskonektatu*” aukera sakatu behar duzu, besterik ez.

Aukera hau uneoro eskuragarri dago eta edozein momentuan sakatu daiteke. Egitekoa bertan behera geldituko da .



Irudia 12: Aplikazioa itxi



5 Laguntza

Herritaren arloan eskainitako zerbitzuen erabilera errazteko, aplikazioan bertan [harremanetan jartzeko eremua](#) eta [ohiko galderak](#) erantzuten dituen atal bat daude.